

mettons à votre disposition pour vous aider dans la mesure de nos moyens pour tout ce qui concerne la langue et la littérature du Pays Basque.

En esperant que ces contacts déjà entrepris par le regretté académicien René Lafon seront plus nombreux dans l'avenir et qu'ils serviront à tisser des liens culturels entre nos deux peuples, nous vous adressons nos très cordiales salutations

Président de l'Académie de la Langue Basque

UME EUSKALDUNEN ALFABETATZEA

Donostia, 1976-X-29

Jose Antonio Retolaza

AGURRA

Agur, eta arratsalde on jaunak:

Euskaltzaindia, sortu zanetik, gure euskerea zaintzen eta bizkortzen alegendu da. Euskereaganako gaur errian dagoan zaletasuna ta jakingurea, zati on baten, berari zor jako.

Euskeraren alde aspalditik lanean diardudan onek orain arte egin dodanaren barri dakartsuet. Ez da teori-lan sakon bat, ez; nik orain arte egindakoen kontu-emote bat baiño.

Nire arazoaren alderdi onak guztiontzat lagungarri izan daitezela; eta oraindik egiteko diranetan, guztion eritxiak eta alegeñak mesedegarri izan daitezela.

EUSKEREAK, GAURKO MUNDUAN IRAUTEKO, SENDOTU BEARRA DAU

Gaurko munduan, edozein izkuntzak bizi al izateko sendoa izan bear, edo sendotu egin bear.

Gure euskereak dakarren atzerapenagaitik, aldean daroan makaltasunagaitik, eta aurrean eta inguruan dituan arriskuakaitik, sendotu bearra dau.

a) *Dakarren atzerapenagaitik*

Orain arteko politika ta gizarte egoeraren erruz gure euskerea ez da, jakintza arloetan batez bere, bear dan beste lan-

du. Erlejiñozko arloa dogu naiko landua, naiz-ta gure egune-tako teknika zeaztasunik bage.

Euskaldun askoren ezpanetan, gaur, euskerea, ez da gau-za jakintza biderako. Ta orra or gure eginkizuna: Jakintza ta teknika guztietarako egokitu euskerea. Gaurko munduan tek-nika da nagusi edozein arlotan. Euskerea bere, bizi al izan daiten, gaurko erara atondu bearra daukagu.

b) *Aldean daroan makaltasunagaitik*

Euskalkiek, alkarren osogarri izan ezkeru, euskeraren aberastasun bat dira. Baina euskalkietan alperreko banake-tak eta zatiketak egiten ba'doguz, kaltegarri dira. Gaiñera gaur, eskolarik ezaz, euskaldun asko ta askok zatiketa oneik erdi oker darabillez, edo ez bear dan moduan. Guzti orregai-tik, indargarri leitekezan euskalkiek, kulturarik ezagaitik batasunerako makalgarri biurtzen dira.

d) *Aurrean eta inguruan dituan arriskuakaitik*

Frantзера ta Gaztelera izkuntzak, euren kultura zabala-gaitik, politikagaitik eta mundu guztian dituen lokarri sendoakaitik, gure euskerea itoteko arriskua ekarten dauskue. Guztiok dakizuenez, gizarte ta politika egoerea dala-ta, gurea iya azkenetan egon da bein baiño geiagotan. Galtzeko arrisku aundiak izan ditu: euskerazko eskolarik eza, euskerazko gizarte komunikabiderik eza eta euskeraren bearrik eza bizi-teko, beste batzuen artean.

Onelako egoera larrian aurkitzen diran euskaldunak, iraungo ete dabe euskaldun? Iraungo ete dau gure izkuntza onek ondorengo ezpanetan?

EUSKERA SENDOTZEKO EGIN DIRAN eta EGITEN DIRAN ALEGIÑAK

Aitatu ditugun akats eta arriskuei aurrea emoteko sendo-tu bearra dau euskereak arin be arin.

Gu baiño len alegindu dira beste batzuk orretan, euren aldiko premiña ta almenen neurrian.

Lengo euskal idazleak, asikeratik banan banan artuta, kezka aundia agertzen dauskue euskerea dala-ta. Guzti orreik aitatu barik, erakunde baten barruan lan egin dabenak bere askotxo dira.

Gure artean egin diran euskeraren literaturari buruzko liburuetan dozue orrezaz naiko zeaztasun.

Kezka barria izan ez arren, euskeraren batasuna da gure egunotan geien arduratzen gaituna. Gure euskal gizarteak onetan artu dauan kontzientzia urtepeide itxaropentsua izan daiteke. Euskerea sendotzeko, premiñazko bide dogu euskeraren batasun ori. Baiña batasun orretara daroezan maillak sendotzea be premiñazkoa jaku. Au da: milla zati eginda dagozan euskalkiak batuaz, euskerea sendotu egiten dogu. Eta ortik, euskalkiei ez eze, batuko dan euskera osoari bere indarra ta bizitasuna etorriko jakoz.

Euskerea batzeko lanean diardugu danok. Batzuk, batasun ori elburu urrena lez artuta; beste batzuk, elburura eltzeko lagungarri diran bestelako lanetan: bakotxak etxean eta erri inguruan ikasitako bidea aukeratu bear dau. Nik, neure bizimoduagaitik-edo, ume euskaldunak euren euskalkietan alfabetatze arazoari ekin dautsat.

Nire arloa ondo bete ezkeru, besteak artu daben arloa be gero ta landuago agertuko dala ondo dakit. Adibide bat ipinteko auxe esango neuke: alkarlanean edo auzolanean diardugula euskeraren arloan... Irabazle, nor? Euskerea bera.

ALFABETATZEA, ORRETARIKO BIDE BAT

Gaurko euskaltzaleak alfabetatze itzaren esangurea oso zabalean darabile. Nik, ostera, argiago edo zeatzago nai neuke. Era bateko edo besteko kulturaren jaube egiteari, kulturatze edo eskolatze deituko neuskio. Euskera bera jatortasun eta erreztasun aundiagoz erabilten ikasteari, barriz, lantzea. Eta azkenez, etxean eta gizartean belarriz ikasitako izkuntzea begiz ikasi eta oiñarrizko lege ta araeuz erabilten erakusteko arazoari, orrexeri deituko dautsot alfabetatzea.

Alfabetatzea da, ba, izkuntza-lantze ta kulturatze guztien oiñarria.

Euskalkietan bananduta dago gaur euskera bizia. Gure euskaldunak darabilten euskerea indartzeko alfabetatzea da beiñengo arzoa.

Bakotxak bere euskalkian artutako erreztasuna ta argitasuna, batuago batentzat laguntza be izango dalakoan nago, bai teknikaz eta bai jokabidez izkuntza bat bera dalako.

Alfabetatu ez diran euskaldunak, euren euskerea zatitu, moztu, naastu, itz-esakeretan murriztu, eta azkenean bizitzarako makaldu eta eskaztu egiten dabe.

Orrelako euskeraz diarduenak batasunera nekezago elduko dira eta batasunari aberaztasun gitxiago emongo. Eta orretara ari diran euskaldunen akatsak zuzendu eta utsuneak beteteko, sustraitik, umeekandik astea onena.

Guzti au dala-ta asi nintzan, ba, umeak euskalkiz alfabetatzen.

UMEEN ALFABETATZE ONEN HISTORIA

Ez uste, orain eta azkenengo urteotan alfabetatze deritxoguna, asikera bat -batera asmatu nebanik, ez, jardunaren erakutsiak gogoan artu ondoren baiño. Ona emen, urrenez urren, egindako bide-urratsak:

SORRERA

Orain dala amaika urte Madrid'en nintzan Sikopedagogia ikasten. Ta antxe, eskolan, egun batean, umeentzat aldizkari bat argitaratzea bururatu jatan.

Aldi aretan, Euskalerrian, utsune aundi bat egoan umeen euskera-arloan. Ikastola batzuk izan ezik, ta oneik be oso gitxi ta oztopo askogaz, ez zan besterik ezer umeentzat. Nik, barriz, milla gauza barruan umeei esateko. Ta orra, 1966 urtean aldizkaritxoa argitaratu neban.

Personaje bageko aldizkari bat utsa da, umeentzat. Orregegaitik, personajea ta izena bera be asmatu egin behar izan nebazan. Personajea onetara sortu ta jantzi neban: ume euskalduna, euskerazalea, jainkozalea, abertzalea, baikorra, euskeraz ez ezik beste izkuntza batzuk be jakiñarren euskaldunakaz beti euskeraz egiten ebana. Izena be ezarri neutsan: Kili-Kili; umeen belarrientzako egokia. Izena ta gogoa bera be, personaje onek emon eutsazan aldizkariari.

ALDIZKARIAREN ARRERA

Arrera ona izan eban. Ezin ohea. Lenengo zenbakian 80 bat ale bakarrik atara nebazan. Baiña andik lasterrera 2.000 inguru zabaltzen nebazan Bizkai-alderdi guztietan.

Eskoletan sartzea, euskeraren alde zerbait esateko, eziña zan orduan. Eskola aurrean-edo itxaroten neutsen nik umeei. Autoari begira jarten nintzan, ibilli eziñik egoala itxura egiñaz. Umeak, jakiña, urreratu ta ingurutu egiten ninduen. Orduan, euskeraz egiñik, neskato edo mutiko bizkorren baten izena ta zuzenbideak gogoan artzen nebazan... eta laster kar-tatxo bat egiten neutsan. Aren poza! Beraren izenean karta bat eldu! Nor ete zan beragaz gogoratzen zan Kili-Kili izeneko ori!

Urrengo batean, lagun batzuen izen-zuzenbideak eskatzen neutsazan, aldizkaria bialtzeko asmoz. Beste guztiak bere beingoan eskatuko eusten... Eta alantxe egiten nebazan "ar-pidedunak".

ALDIZKARIAREN BAIMENAK

Aldizkaria ez zan ezkutukoa. Bilbo'ko San Anton parroki-ko Euskal-Katekesia agertzen zan beraren jabe. Baiña ez egoan lege barruan. Baimena eskatzeko bildur nintzan.

Bein, Ondarru'ko Imanol Oruemazaga abadeari ale bi arrapatu eutsezan etxean Franco'ren poliziak. Eta "revista clandestina" lez agertu eben aren "sumario"-an. Euskalerriko mapea agertzen neban, bertan eskursiñoa nundik nora izango zan esanaz. Egia esateko, ibillera ori atxakia baiño ez zan; nire asmoa umeai Euskalerriko mapea erakustea zan... Poliziak igarri! Orduan, benetan bildurtu nintzan, ez orrenbeste nire buruagaitik, Kili-Kili'ren etorkizunagaitik baiño.

Ori dala-ta, Bilbo'n orduan sortu-barria zan "Euskerazaleak" alkartera jo neban, babespe billa. "Euskerazaleak" ondo artu ninduan, obeto ezin, eta aren bidez Madrid'eko Ministerio de Información y Turismo'ra jo neban baimen eske... Baiña, gaur arte! Galerazo, ez; baiña baimenik emon bere ez. Gero be sarritan jo dogu bertara, baiña dana alpe-rrik. Oraintsu be jo dogu... ta itxaropena ez dot galdu.

ALDIZKARIA ATARA EZIÑEAN, BESTE ARAZO BAT: ALFABETATZEA

Aldizkariaren 5 garren zenbakian burutasun on bat euki neban. Kili-Kili personajea onelan agertu neban: ogean gaixorik, osagillea aurrean eukala, eta au esanez: "Osagille onek ezin dau igarri nire gaixoa; batean eztarriko gatxa dodala, bestean, bularrekoa... Baiña barrurago, biotzean dot nik miña; biotzeko larria dot nik, EUSKERAREN larria. Ara: udan erririk erri ibilli nenbillela, zuok, euskaldunok, erderaz egiten dozuela ikusirik, otzikara bat sartu jatan biotzean, eta axe dot nik barruan. Baiña kartatxo bat egingo ba'zeuste, aurrerantzean beti euskeraz egingo dozuela esanaz, beingoan osatuko nintzake".

Erantzuna itzelezkoa izan zan. Egun osoak emoten neban kartak irakurten eta idazten. Zenbat ikasi neban! Karta orreik irakurriez ainbat gauzaz konturatu nintzan. Bannenkian jakin, umeak ez ekiela irakurten eta idazten euskeraz, baiña ez nenkian zertan eta zergaitik egiten eben ainbeste uts. Sakondu barik neukan beintzat arazo ori. Benetako agerpen bat izan zan niretzat. Eta umeen euskeraren egoera tristea konpontzea premiñazkoa zala-ta, "Sariketa Nagusia" izenaz alfabetatze kanpaiña bat asmatu, eratu, iragarri ta aurrera eroan neban. Ta olan, aldizkaria (baimena ezagaitik) argitaratu eziñean, alfabetatze arazoan sartu nintzan burubelarri.

UMEEN EUSKERAREN EGOERA ta ALFABETATZEA

Ume areik belarriz eta agoz ba-ekien euskerea, baiña begiz, ez.

Sikolojiak dirauskunez, entzun-irudimena bakarrik edota entzun eta ikus-irudimenez batera jakin daiteke izkuntza bat. Berba egiteko, naikoa dogu entzun-irudimenez jakitea. Irakurteko ta idazteko, ikus-irudimenez jakin bear. Belarri utsez dakienak, entzun, ulertu ta itz egiten ba-dakie, baiña idatzitakorik ez dabe ulertzen; au da: idatzitako irudiak ez diñotse ezer, ta ondo ikusiarren ezin dabe ulertu, naiz-ta erderaz irakurten jakin, norberak entzuteko lez irakurten ez ba'dabe. Ta or dago untzea: berba egiten dogunean "nasai-eran" egiten dogu (erderaz "forma relajada" esaten dana).

Idazten dogunean, ostera, "literario" eran. Ume oneik "inbiot" esaten dabe, baiña "egin bear dot" ikusiko dabe idatzita beti. Ta orrelako asko ta asko. Belarriz ikasitakoa ta idazten dana ez dira, ba, bardin-bardiñak.

Kili-Kili'ri kartak egitean "nasai-eran" egiten eben ume areik, eta erdal-ortografiaz, besterik ez ekielako.

Ona emen egiten dabezan uts batzuk:

1. Ez dabez berbak egoki banatzen. Batzutan bi-iru berba alkartu egiten dabez; beste batzutan bat erdibitu.

2. Moztu, laburtu egiten dabez berbak. Ez dakie, ba, oso rik erabilten.

3. Erdal ortografiaz idazten dabe. Abots batzuk erdal-ortografiaz idatzi ezin dabenean, eurak asmatzen dabez era barriak.

4. Erdal-joskerarako jokerea dabe. Ez orrenbeste berba egitean.

5. Aditz-jokoan larri be larri dabiltz.

6. Iztegi-arloan oso pobre. Berba jatorrak aztu, eta erdal itzak erabilteko jokerea dabe, konturatu barik egin bere.

7. Esakeretan, urri ta eskas.

8. Euskeraz itz egiteko be lotu-antzera dagoz. Bildur dira. Ez dira euskereaz jabetu eta barru-bildurrak, konplejoak, daukez.

Batean, euskeraz ez dakiela esango dabe, bestean gatxa dala, eziña dala... Azkenean erderaz egin eta kito!

Uts eta oker oneik zuzentzeko arazoari deritxot nik alfabetatzea.

Euskerea sendotzeko eta baturantza joateko bear-bearrezkoa deritxot nik alfabetatze eginkizun ori. "Nasai eran" egiten dauanari Gramatika-erak garbi erabilten irakastea, batasun bidean jartzea da. Ez da izango bide bakarra, baiña bai onenatarikoa.

Bat edo batek esango daust zergaitik ez asi alfabetatze lana batua deritxon euskera mueta orretan. Ona emen nire erantzuna:

Belarriz dakiena begiz irakatsi bear ba'dautsegu umeai, ezpanetan darabilten euskerea bera edo antzekoa idatzi bear dautsegu. Esate baterako: "Sagarrak ekarri DOTZETAS" esa-

ten dauan bizkaitar ume bati DAUTSADAZ (edo "deutsadaz") erabilten irakastea, alfabetatze lana dogu. DOTZETAS esaten dauanari DIZKIOT edo DAUSKIOT erabilten irakastea, osterara, beste lan bat da. Kili-Kili'ren egitekoa ez da umeai euske-rea irakastea, umeak dakien euskeraz alfabetatzea baiño.

Biak batera egin leitekezala?

Ume bati oiñez ibiltan eta bizikletan ibiltan, biak batera, irakatsi leitekiozala? Bai, noski... Baiña bide orreik ez dira, orregatiño, pedagogi-biderik onenak. "Ezagunaren bidez ez ezagunera" jo bear dala dirausku pedagogiako arau batek. Bide errezenera jo bear dogula bere ba-dirausku. Sikolojiak, barriz, "izkuntza-konplejorik" sortuko ez daben bideak jarraitzeko agintzen dauku.

Kili-Kili'ren liburuxkatan lenengo aldiz euskeraz irakurri eta ulertu egiten dabela umeak konturatzen diranean... areen poza!

IKASTOLARA EZ DOAZENENTZAT SORTUA

Berba egiten, etxean eta gizartean ikasten da. Irakurten eta idazten, eskolan. Gure umeak, nun?

Ikastolen arazo alfabetatzea baiño geiago da. Baiña nun ikastolak? 1968 urtean zenbat ikastola ziran? Gaur be, 1976 urte onetan, zenbat ume euskaldun dira eta zenbat ikastola?

Bosteun milla ei gara euskaldunok Euskalerrian. Bostetik bat joaten ei da eskolara etxe bakotxetik. Onelan ba'da, 100.000 ume euskaldun doguz Euskalerrian eskolara joateko sasoiaren. Euretatik zenbat ete doaz ikastoletara? 20 milla? Geiagorik ez.

Geienak ba, ikastolatik kanpoan dagoz. Kili-Kili'ren alfabetatzea, ikastolara ez doazen umeentzat asmatua da, ikastolarik ezaren utsunea betetzeko sortu zan.

SARIKETA NAGUSIA

"Kili-Kili Sariketa Nagusia" ikasketa bat da, joko aundi baten barruan asmatua. Ikasketa ori maillaz eta ikastaroz eratuta dago. Ikastaldiak, modu askotara daroaguz aurrera. Batzutan, erderaz "cursos a distancia" deritxogunaren antzera. Beste batzutan, arduradun eta laguntzailleak doguzan

lekuetan, onein bitartez milla modutara. Oraintsu, erriko eskoletan be sartuak gara.

Euskalduna izan ezkeru, edonor sartu daiteke ikastaro oneitan. Eta bere burua alfabetatuz baita saria irabazi be. Maisu bearrik ez, orretarako, ez eta talento aundi edo diru bearrik ere. Gogo da, izan, bearrezkoena. Eta umeentzat asmatua izan arren, nagusientzat be balio dau ikasbide onek.

Urtero, udagoienean, txartel aundi baten bidez dei bat egiten dogu Sariketa barria iragarteko. Aldi berean txarteltxo batzuk zabaltzen doguz, Sariketan sartu nai dabenak izenzuzenbideak bertan ezarri dagiezan. Gero, liburuxka batzuk emoten dautseguz. Liburuxka oneik bete egin bear ditue eurak, eta guri bialdu. Orduan, zuzendu egiten doguz, puntuak jarri eta merezi dabenei saria emon. Eskursiño bat izaten da geienetan sari ori.

IKASMAILLAK, IKASTAROAK eta IKASLIBURUAK

Ona emen:

1.º MAILLA : UMEEN MAILLA

Umeen mailla, 1.º ikastaroa (7 urtekoentzat), 1.º, 2gn, 3gn LAN ta LAN liburuxkak
 Umeen mailla, 2gn ikastaroa (8 urtekoentzat), 4gn, 5gn, 6gn LAN ta LAN liburuxkak
 Umeen mailla, 3gn ikastaroa (9 urtekoentzat), 7gn, 8gn, 9gn LAN ta LAN liburuxkak
 Umeen mailla, 4gn ikastaroa (10 urtekoentzat), 10gn, 11gn, 12gn LAN ta LAN liburuxkak

2gn. MAILLA : Gaztetxoan MAILLA

gaztetxoan mailla, 1.º ikastaroa (11 urtekoentzat), 1.º, 2gn, 3gn EKIN ta EKIN liburuxkak
 gaztetxoan mailla, 2gn ikastaroa (12 urtekoentzat), 4gn, 5gn, 6gn EKIN ta EKIN liburuxkak
 gaztetxoan mailla, 3gn ikastaroa (13 urtekoentzat), 7gn, 8gn, 9gn EKIN ta EKIN liburuxkak

3gn MAILLA : GAZTEEN MAILLA

Gazteen mailla, 1.º ikastaroa (14 urtekoentzat), 1.º, 2gn, 3gn JARRAI liburuxka
 Gazteen mailla, 2gn ikastaroa (15 urtekoentzat), 4gn, 5gn, 6gn JARRAI liburuxka

MAILLA BAKOTXAREN ELBURUA

Lenengo maillan auxe da elburua: umeak belarriz dakien izkuntzea begiz be ikastea. Eskolan erderaz ikasi dabe irakurten eta idazten. Bai erderaz bai euskeraz, bardin-antzekoa da teknikea. Olan ba, irakurriz eta kopiatuz, oitu daitezela euskeraz bere umeok. Irakurri, entzuteko lez egin bear dabe, entzun-irudimena ta ikus-irudimena alkartu daitezana. Idatzi, liburuxkan dagoana, dagoan lez, kopiatuz. Euskal-ortografia erreza da. Ekiñaldi onen bidez berbak osorik erabilten eta banan banan eta erdibitu bage idazten ikasten dabe. Iztegi ta esakeretan aberastu egiten dira, neke aundi barik, berez berez. Aditz-jokoan, bizkortasuna ta sendotasuna lortzen dabe. Euskera erreza ipinten ba'jake aurrean, igarri barik, errez, bizkor eta pozik ikasten dabe, aurre-eritxi edo prejuizio guztiak galduaz. Bide oberik ezin, aurrera egiteko. Au da ba, nire eritxiz, alfabetatze benetakoa.

Bestelakoa da elburua bigarren maillan: dakien euskeraz jabetzea, gaztetxook. Euskaldun izan, ba-dira, ta euskerea ikasi bearrik ez dauke. Berba egitean gramatika-arauak erabilli egiten dabez. Baiña arau orreikaz ez dira jabetu. Bigarren mailla onen arazoa orixe dogu, ba: arauetaz jabetzea. Ori lortu ezkeru, orrein euskerea sendo geratzen da.

Bigarren mailla burutu ezkeru, gaztetxoa alfabetaturik dago, egon, baiña alan bere irugarren mailla bat dot asmatzeko gazteentzat; bakoitza norberaren euskalkitik besteen euskalkietara zabaldu daiten eta euskera baturantza begira jarri daiten.

IKASLIBURUAK

“LAN ta LAN” izeneko liburuxkak erabilten doguz lenengo Maillan; “EKIN ta EKIN” orriak (orriak oraingoz, gero liburuxkatan batzeko asmoz) bigarren Maillan; eta “JARRAI” izena eroango daben liburuxkak irugarrenean (oneik oraindiño argitaratu bage).

LAN eta LAN liburuxkak ez dira eskoletarako egiñak, ezta ikastoletarako bere. Eskoletan sartzea eziña zan; ikastoletako zeregiñak, barriz, alfabetatzearen gaiñetik egon bear leukez. Gure liburuxka oneik umeak eurak iñoren laguntasunik bage

etxean-edo betetzeko asmatuak dira. Errez errezak, edozei-
ñek betetzeko modukoak.

Liburuxka orreik batez bere kopiatzeko asmatuak diran
ezkero, eta ikasleak, txiki ta aundi, adin guztietarikoak izaten
diran ezkero, sikoloji-edaderik ez dot orrenbeste aintzakotzak
artu.

Liburuxka orreen euskerea, euskalki-euskerea da, lenago
esan dogunagaitik.

Irakurgaiak eta idazlanak, kultura arlokoak dira, euskal
kultura-gaiak batez bere. Matematika, Jeometria-ta erabi-
lliaz gaiñera, euskal Historia, euskal Jeografia ta abar erabil-
ten dodaz. Nire asmoa ez da Matematika ta Jeometria irakas-
tea. Ori eskolan ikasten dabe. Baiña ba-da, Matematika eus-
keraz erabili daitekela erakustea. "Sumau, errestau,
multiplikau"-ta esatea baiño, "batu edo batuketa, kendu edo
kenketa, bider edo biderketa" esatea errezagoa, egokiagoa ta
euskeraz jatorragoa dala. Jeografia be, geurea ba-dogula;
Euskalerriko mapea be ba-dala... iparralde, egoalde, sortal-
de... ta guzti!

Baita Historia be, eta euskal Gramatika ta euskal Litera-
tura. Onelakorik, eskolan, entzun be ez dabe egin sekula gure
umeak.

Onetara, umeen biotzetan euskal nortasuna ta euskal
kontzentzia biztutea izan da nire asmoa. Kontzentzi onek,
gero, euskerea landutera ta maitatzera eragingo dautse-ta.

EUSKALERRIAN ZABALDU EGIN DA KILI-KILI SARIKETE

Ipar-Euskalerrian, Lapurdi'n ain zuzen be, Seaska Elkar-
tekoak asi ziran zerbait egiten, baiña nik pasaporterik ez-eta
ara joan eziñean bertan bera geratu zan. Ego-Euskalerrian,
barriz, zabal-zabal agiri da. Bizkaia'n sortu zan, baita zabal-
du be, len esan dodanez. Urrena, Naparroa'n, Diputaziño'ko
Principe de Viana'ren bidez, 1970 urtean. Gipuzkoa'n gero,
Euskeralagunak Elkar-tearen bidez 1971 urtean. Eta azkenez,
Araba'n, Diputaziñoaren bidez 1973 urtean.

Azken urte oneitan amazortzi bat milla umek diardue
urtero Sariketean. Gitxi gorabera onelan bananduta: 7.000

Bizkaia'n, 6.000 Gipuzkoan, 4.000 Nafarroan, 500 Araban eta berreun bat atzerrian.

Ezaguna da, beraz, Kili-Kili Euskalerrian. Prensak eta telebisiñoak zabalkunde aundia egin dauskue oraintsu, baiña orain artekoan ixilleko lana egin dogu, kanpairik jo bage, bil-durrez.

Amar urte oneitan berrogetaz milla umek izan dabe artuemona Kili-Kili'gaz. Fitxeroetan, guzti orreen izen-zuzenbideak daukaguz.

ERAKUNDEA

Zuzendaritza Bilbo'n dago. Ordezkaritzak: Nafarroa'ko eta Araba'ko Diputaziñoetan, eta Gipuzkoa'n Eibar'ko Euske-ralagunak Elkartean.

Errietan, erri askotan beintzat, arduradun bat—edo izaten dogu, ta beronen laguntzailleak. Arduradun eta laguntzaille oneen zeregiña auxe da: zabalkunde egin, eskabideak jaso, kuadernoak banandu, iñoiz umeak batu ta kuadernoak betetzen lagundu, liburuxkak bete ondoren zuzendu, puntuak jarri eta sarri askotan eskursiñoak eratu eta egin. Leku batzutan, baita dirua billatu be, euren gastuak ordaintzeko. Arduradunik ez dagoanean, geuk leporatzen dogu lan guzti ori, korreo bidez egiñaz.

DIRU-LAGUNTZA, NUNDIK?

Umeak eurak ez dabe ordaintzen, edo beintzat, ez dabe ordaindu bearrik. Ume orreen gurasoak, geienak, ez dabe euskal kontzientzirik... Dirua eskatzen ba'dautset, orduan ez dirurik eta ez euskerarik... Ta nik ume orreen euskerea nai. Naiz ta arazo onetan lan egiten dogunok euskereagaitik baka-rrik jardun, dirurik jaso bage, Kili-Kili'ren gastuak aundiak izaten dira. Zabalkunde, fitxeroak, ikas-liburuxkak, sariak, lantokiko tresnak, ibillaldiak-eta ez dira dirurik bage egiten.

Lenengotan, egia esan bear ba'dot, neure boltsillotik ataraten zan dana. Laster, Bilbo'ko euskaltzale jatorren artean berez berez sortu ziran Kili-Kili'ren lagunak, eta esku-erakutsiak egiten eustezan. Baiña geroago be, naiz-ta Euskerazaleak Elkarateak borondate guztiaz lagundu, beti izan dodaz diru-problema Bizkaian. Orregaitik ibilli bear izan dot beti limosna eske. Orain, Bilbao Aurrezki Kutxa dot laguntzeko prest. Gipuzkoan Aurrezki Kutxa Probintzialak laguntzen daust lenengotatik. Nafarroan eta Araban Diputaziñoak. Eskerrak euroi.

ONDORENAK

Ez dakit noraiño izan dan onuragarri Kili-Kili arazoa. Baiña au bai esan neike: 60.000 LAN ta LAN liburuxka zabaltzen dirala urtero, eta liburuxka oneik bein eta barrero irakurriak izaten dirala. Liburuxka oneikaz ez da jazoten euskal aldizkari ta liburuai, zoritxarrez, sarri-askotan jazoten jakena: erosi ta irakurri bage liburu-tokietan gordeak izatea, edo zakarretara jaurtiak. Liburuxka oneik kopiatu egin bear diran ezkerro, bein eta barrero irakurriak izaten dira. Eta umeak baka-rrik ez, etxeakoak bere irakurle izan oi dira, askotan. Konturatu bage, oneik be alfabetatu egiten jakuz.

Gaur gazte diran askok, umetan Sariketan jardun eben. Asko-gitxi, euskeraz idatzi izan dabe. Eta konturatu dira euskeraz idaztea ez dala eziña, ezta gatxagatxa be. Orduko lenengo pausuari eskerrak, orain aldizkari ta liburuak irakurten asi dira. Soldadutzara doazan mutillak ez dabe aurrerantzean erderara jo bearrik izango ezkongaiari karte egitean. Ikastoletan-eta lanean diarduen andereñoai euskera arloan noiz eta zelan asi ziran itanduten ba'dautsezue, batek baiña geiagok Kili-Kili'ren Sariketan asi zirala erantzungo dautsue.

Kili-Kili dala-ta gure errietako gazteai arazo bat emon jake: umeak batu, alkartu, eta alfabetatuaz batera umeok beste gauza askotarako gertu.

ESKERRAK

Batera naiz bestera lagundu dausten guztiei nire esker ona erakutsi nai dautset. Baita zuoi bere, entzule jaunok!